

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2020an Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko Gasteizko Udalaren 2020ko deialdi publikoaren 2020ko irailaren 29ko ebazpenaren kontra B01578251 IFZ duen enpresak aurkeztutako berraztertze errekurtsua onesteko erabakia

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4 artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2021eko urtarrilaren 22ko ebazpena, zeinen bitartez 2020an Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko Gasteizko Udalaren 2020ko deialdi publikoaren 2020ko irailaren 29ko ebazpenaren kontra B01578251 IFZ duen enpresak aurkeztutako berraztertze errekurtsua onestea ebatzi baitzen, eta eduki hau baitu:

I. 2020ko ekainaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko Gasteizko Udalaren 2020ko deialdi publikoa, baita berariazko oinarri oinarriak ere —2020ko ekainaren 29ko ALHAO, 72. zk.—, konkurrentzia-prozeduraren bitartez tramitatzeko, 40.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuko 08.10.4331.4.7104 partidaren kontura.

II. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren 2020ko irailaren 29ko ebazpenaren bitartez ebatzi zen deialdia —2020ko urriaren 16ko ALHAO, 117. zk.—, erabilgarri zegoen diru-zuzkidura agortuz, eta orobat erabaki zen, xedapenaren lehen puntuan, besteak beste B01578251 IFZ zenbakia duen enpresak aurkeztutako laguntza-eskabidea ez onartzea, deialdiaren 6. oinarrian ezarritako epetik kanpo aurkeztu zenez gero.

III. 2020ko urriaren 23an, B01578251 IFZ duen enpresak berraztertze errekurtsua aurkeztu zuen 2020ko irailaren 29ko ebazpen horren kontra, adierazten zuelarik, laburbilduz, oinarrietan ezarritako epearen barruan aurkeztu zela laguntza-eskabidea posta-zerbitzu publikoaren bulego batean, eta, hori egiaztatze, ziurtagiria erantsi zuen.

IV. Biltzar eta Turismo Zerbitzuko buruak, 2020ko abenduaren 28ko idazki baten bitartez, jakinarazi zuen ezen, dosierra berrikusi zelarik, egiaztatu ahal izan zela errekurtsogileak epe barruan aurkeztu zuela eskabidea, posta-bulego batean, eta, horrenbestez, aurkeztutako errekurtsua onetsi zedila proposatu zuen.

V. 2021eko urtarrilaren 5eko txosten juridiko baten bitartez, errekurtsua onestearen alde agertu zen Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria, zuzenbide-oinarri hauek aintzat hartua:

1. Dirulaguntza-eskabidea, baita harekin zerikusia duen beste edozein agiri ere —justifikazioa eta abar—, administrazio-prozedurari buruzko legedian zehazten direnetako edozein lekutan aurkez daiteke.

2. Dokumentuen erregistroa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan dago araututa —2015eko urriaren 2ko BOE—, honela baitio 4. atalean: "Interesdunek toki hauetan aurkeztu ahal izango dituzte administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten dokumentuak: b) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan."

3. Erregelamendu bidezko zehaztapena abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuan dago jasota, zehazki 31. artikuluan, honela baitio:

“Herritarrek nahiz entitateek posta-zerbitzu unibertsala emateko arduraren eman zaion operadorearen bitartez administrazio publikoetako organoetara zuzentzen dituzten eskabide, idazki eta komunikazioak gutun-azal irekian aurkeztuko dira, bidali nahi den dokumentuaren lehen orriaren goiburuan argi eta garbi adieraz daitezzen bulegoaren izena eta onarpen-data, tokia, ordua eta minutua.

Zirkunstantzia horiek onarpenaren frogagiria jaso beharko dira. Bidaltzaileak orobat eskatu ahal izango du bidali nahi den dokumentu nagusiaren kopiaren, fotokopiaren edo bestelako erreproduzioaren lehen orrian bidalketaren zirkunstantziak jaso daitezela —jatorrizkoarekin alderatu ondoren—, eta hori aurkeztu beharko du hura administrazio-organo eskudunaren aurrean aurkeztu izanaren egiaztagiria gisa.

Zuzemen horiek egin ondoren, bidaltzaileak berak itxiko du gutun-azala, eta enpleguak onarpen-agiria formalizatu eta entregatuko dio, zeinen matrizea bulegoan artxibatuko baitu.

Artikulu honetan aurreikusitako formalitateak betetzen direlarik posta-zerbitzu unibertsalaren arduraren duen operadoreak onartutako bidalketak behar bezala aurkeztuzat joko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan eta hura garatzeko araudian aurreikusitako ondorioetarako.”

VI. Efikazia- eta efizientzia-printzipioak aplikatuz, Biltzar eta Turismo Zerbitzuko buruak, 2020ko abenduaren 28ko txosten tekniko beraren bitartez, errekurtsogileak bere garaian aurkeztutako eskabidearen hasierako azterketa eta balorazioa egin zuen, eta ondorioztatu ezen, errekurtsogileak aurkeztutako aurrekontutik, marketinaren arloan sartutako gastuak eta inbertsioak baino ez zirela diruz laguntzeko modukoak, deialdiaren 5. oinarriaren arabera; guztira, 2.450,00 euro.

V. Deialdiaren 7. oinarriaren ildotik, Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2020ko abenduaren 29an egindako bileran aztertu eta eztabaidatu zen errekurtsogileak aurkeztutako eskabidea, eta, deialdiaren baldintzak betetzen zituela egiaztatu ondoren, eta orobat berretsi zirelarik abenduaren 28ko txosten teknikoaren arabera diruz lagundu zitezkeen gastuak eta inbertsioen mugak, baloratu egin zen, oinarrietan —2.1. ildoan— ezarritako irizpideak aplikatuz, eta, guztira, 25 puntu eman zitzaizkion, eta, horrenbestez, 1.225,00 euroko dirulaguntza teorikoa proposatu zen, krediturik erabilgarri izanez gero ere.

VI. Lortutako puntuazioa ikusirik, eta deialdirako zuzkidura ekonomikoa agortuta zegoenez, hautatze-batzordeak aho batez erabaki zuen Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari ebazpen-proposamen hau egitea: aurkeztutako berraztertze errekurtsua onetsi zedila, eta enpresa eskatzailea deialdiaren 7. oinarrian xedatutako ondorioetarako —uko egiterik gertatzen bada edo emandako laguntza itzuli beharrik gertatzen bada ere— sortutako itzarote-zerrendan bigarren jar zedila.

Hori guztia kontuan izanik, eta aipatutako arauak aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, eta eskumenak eskuordetzeko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko ekainaren 12ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau:

EBATZI DU

Lehena. 2020an Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko Gasteizko Udalaren 2020ko deialdi publikoaren 2020ko irailaren 29ko ebazpenaren kontra B01578251 IFZ duen enpresak aurkeztutako berraztertze errekurtsua onestea, eta errekurtsogilearen laguntza-eskabidea epe barruan aurkeztuzat jotzea.

Bigarrena. Errekurtsoa onestearen ondorioz, eta egiaztatu delarik errekurtso-egilearen laguntza-eskabideak deialdiko baldintzak bete arren hura ezin dela izan dirulaguntzaren onuradun –zuzkidura ekonomikoa agortuta baitago–, 7. oinarrian aurreikusitako ondorioetarako sortutako itxarote-zerrenda aldatzea, enpresa errekurtso-egilea bertan sartzeko, lortutako puntuazioa kontuan izanik.

Hortaz, honela geratuko da delako itxarote-zerrenda:

ZENBAKIA	IFZ/NAN	LORTUTAKO PUNTUAZIOA	DIRU-LAGUNTZA TEORIKOA	DIRU-LAGUNTZA
1	B01157882	30,5	10.000,00 euro	4.508,76 euro
2	B01578251	25	2.450,00 euro	1.225,00 euro

Hirugarrena. Errekurtso-egileari ebazpenaren berri ematea, eta jakinaraztea beraren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango duela, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik.

Laugarrena. Ebazpen hau Udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea, eta interesdunei jakinaraztea administrazio-bidea agortzen duela, eta beraren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dutela, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Halaber, behar den informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 20. artikulua ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 1ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI